



LEGAZPIKO
UDALA

JAIETAKO ZAPIRAKO IRUDI LEHIAKETA OINARRIAK

1. GAIA: Legazpiko jaiak
2. LANAK: Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du.
3. PARTAIDETZA: Legazpin erroldatutako edo Legazpin ikasi edo lan egiten duten 16 urtetik gorakoek (2008an edo lehenago jaiotakoak)
4. EZAUGARRIAK:
Legazpiko jaien ezaugarriak islatu beharko ditu. Idatzita izango duen testua “Santikutz Jaiak. Legazpi” izango da. Irudiak, gehienez, triangelu formako gainazal hau hartuko du: 70x70x100. Herriko banderaren koloreak erabiliko dira, eta zapia beige-a izango denez, aurkeztutako irudia granatea izango beharko du. Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira.
5. LANAK AURKEZTEKO MODUA
 - Euskarri fisikoan: lanak Kultur Etxeko sarreran aurkeztuko dira. DINA4 neurriko bi gutun-azaletan. Batean lana joango da, besteak parte hartzailearen datuak jarriko dira: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Gutun-azal biei izenburu berdina jarriko zaie.
 - Formatu digitalean: formatu digitalean egindako lanak zapia@legazpi.eus helbidera bidali ahalko dira. Lanaren amaierako dokumentuan (pdf edo jpg formatuan), eta lana formatu bektorialean bidali beharko da. Egilearen datuak zehaztu behar dira mezuan.
6. AURKEZTEKO EPEA.
2024ko Otsailaren 2an, 13:00ak aurretik.
7. EPAIMAHAIA
Jaietako lan taldeak erabakiko du epaimahaia nola osatuko den.
Epaimahaiak jaietarako egokiena den lan onena aukeratuko du.
Epaimahaiak hala erabakiz gero, lehiaketa hutsik geratu ahal izango da.
8. SARIA: 200€
9. LANEN ESKUBIDEAK: Saritzen den lana Udalaren esku gelditzen da. Eraldatzeko eta kaleratzeko eskubidea izango du. Udalak jendaurreko komunikaziorako, kopiaatzeko eta banatzeko eskubideak ere eskuratuko ditu; eskubide horiek Udalarenak baino ez dira izango.
10. OHARRA:
Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaikoen erabakia onartuko dela esan nahi du.